

## Eilastasuna Fondoa 2009

**PROIEKTUA: Korrante elektrikoko generadorea Hezkuntza Bereziko Zentro batean. Sahara.**

Tokia	Tindoufeko (Smara) kanpamenduak	Bertako erakundea:	Smarako Wilaya integratuzko eta hezkuntzarako zentroa
Eremua	Hezkuntza	Eskatutakoa	2000 euro

Egitasmoa aurkezten duen bertako erakundea

Smarako integratuzko eta hezkuntzarako Wilaya zentrua.

Zertan datza proiektuak

Korrante elektrikoko generadore bat jartzea aire hozkailuak hornitzeko, modu honetan "Oporrak pakean" programatara joan ezin diren ikasleen gelak freskatu ahal izango dira udan.

Era berean neguan gelak berotzeko balioko luke. Urte hau bereziki gogorra suertatzen ari da kanpamenduetan.

Nori egiten dio onura zuzenean

Ezintasun fisiko eta psikikoak dituzten 50 haur eta gazte dira onuradunak.

Ikastetxeko 10 langileen lan baldintzak hobetzen lagunduko du.

Nori egiten dio onura zeharka

Ikasleen familiei zeharka.

Aurkeztutako aurrekontua

Une hauetan ez daukagu gastuen erlazio bat. Eskatutako laguntzak proiektu zabalago bati aportoazio bat egiteko balioko luke. Eskatutako diruarekin ezingo litzateke ezta proiektu osoa burutu.

Harremana eta jarraipena

Jarraipena Gipuzkoako Nagore liberatuak eta Felix Etxeberria afiliatuak egingo lukete.